

EASYIKASI



Easyikasi

**Ander Perez Rementeria
Hegoi Pujana Cuellar
Julen Tejón Marin**

AURKIBIDEA

0. GURE IDEIA	3
1.BALIO PROPOSAMENA	4
2.BEZEROEN SEGMENTAZIOA	5
3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK	7
4. DIRU SARRERAK	7
5. KANALAK	9
6. HARREMANAK	9
7. BALIABIDEAK	11
8. FUNTSEZKO JARDUERAK	12
9. KOSTUAK	12

0. GURE IDEIA

Gaur egun gero eta gehiago dira institutuaz gain akademia ezberdinetara joaten direna ikasleak, gelan egindakoa erreparatzeko, hobeto ulertzeko edota etxeko lanak egiteko. Guzti hau aurrez aurreko akademietan egiten dute eta normalean beste ikasle batzuekin batera. Egoera honen aurrean aurkituta, ikasketa prozesu hau online egiteko enpresak falta zirela ikusi genuen eta negozio aukera bat dela uste dugu.

Gure negozio-eredua, ikasleei beraien ikasketetan laguntza eskaintzean datza. Institutuan ikasten dituzten ikasgaiak erreparatzeko edo zalantzak argitzeko online akademia bat gara, gure laguntzari esker ikasleek erraztasun gehiagorekin ikasiko dute eta beraien kalifikazioak hobetzea lortuko dute. Aplikazioan ikasgai bakoitzari buruzko bideo teorikoak, ariketa ebatzi ezberdinak eta irakasle espezializatu batekin bideodei bat egiteko aukera izango dute, aurreko azalpenekin nahikoa ez bada.

Enpresaren izena **“Easyikasi”** da, Easy (ingelesez errez esan nahi du) + ikasi hitzen konbinazio bat. Enpresaren izena bi hizkuntzetan jartzea erabaki dugu hasiera batean Durangaldean jardungo dugun arren, aurrerago gure enpresaren hazkunde bat espero dugu, eta izena internazionala izanik jende gehiagorengana heltzea errazagoa izango da.

Gure enpresaren logoa hontz baten irudia da, hontza betidanik izan delako adimenaren ikurra eta horrek gure enpresaren jarduera nagusiarekin bat egiten du eta irudiak dituen begi handiek ikasleek hobeto ikastea irudikatzen dute.

Hasiera batean, taldea hiru pertsonen osatuko dugu: Hegoi Pujana, Julen Tejon eta Ander Perez. Gure artean banatuko dugu enpresaren kudeaketa, gure ikasle esperientzia kontuan hartuz. Beranduago, irakasleekin eta beste hainbat pertsonekin jarriko gara kontaktuan gure enpresari beste bultzada bat emateko.

